



**Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordea /
Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia**

**02/2019 EBAZPENA, IRAILAREN 3KOA, GARDENTASUNAREN ARLOKO
ERREKLAMAZIO BATZORDEARENA**

Espedientea: 2019/00002

Gaia: Erreklamazioa, [redacted] jaunak [redacted] ren izenean eta haren ordezkari gisa eta [redacted] jaunak [redacted] ren izenean eta haren ordezkari gisa aurkeztutakoa, ezetsi egin delako BIDEGI Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia - Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SAn informazio publikoa eskuratzeko aurkeztu zuten eskaria.

AURREKARIAK

1.- 2019ko martxoaren 11n, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean sartu zen [redacted] jaunak [redacted] izenean eta haren ordezkari gisa eta [redacted] jaunak [redacted] izenean eta haren ordezkari gisa aurkeztutako erreklamazioa, BIDEGIk Gipuzkoako Azpiegituren Agentziak - Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SAK (aurrerantzean, BIDEGI)- ezetsi egin zuelako informazio publikoa eskuratzeko aurkeztu zuten eskaria. Aipatutako erreklamazioaren ziurtagiria 2019ko martxoaren 5ean egin zen [redacted] ko bulego batean.

2.- Espedientean ageri denez, erreklamazioa aurkeztu duten merkataritza sozietateak lizitatzailerak izan ziren, [redacted] BIDEGIk izapidetu zuen prozeduran, [redacted] obrak gauzatzeko eta proiektua idazteko kontratua esleitze aldera. Prozedura hori, zehazki, BIDEGIren Administrazio Kontseiluak [redacted] saioan,ebatzi zuen, eta erreklamazioa aurkeztu dutenak ez ziren esleipendun atara. Aipatutako akordioaren aurka berraztertze errekurtsoa jarri eta hura Administrazio Kontseiluaren [redacted] akordioaren bidez ezetsi ondoren, [redacted] ren ordezkariak eskaria aurkeztu zuten BIDEGIIn, administrazio-espeditentea, eta, zehazki, honako agiri hauek eskuratzeko:

"- Kontratazio-organoak barne-mailan igorritako txosten juridikoak, [redacted] k aurkeztutako berraztertze errekurtsoari buruzkoak.

- Enpresa esleipendunak [redacted] egindako alegazioak eta, hala badagokio, aurkeztutako txostenak.

- Hirugarren interesdunak egindako alegazioak eta, hala badagokio, aurkeztutako txostenak."

3.- BIDEGIko Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuak ebazpenaren bidez eskatutako informazioa eskuratzeko aukera ukatu egin zuen eta ebazpen hori 2019ko otsailaren 5ean jakinarazi zitzaion erreklamaziogileari.

BATZORDEAREN ESKU-HARTZEA

1.- Erreklamazio hau 2019ko martxoaren 5ean jarri zen Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordean. Ildo horretatik, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koak, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoak, 24.2. artikuluan, eta 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoak foru gobernaintza publikoaren esparruan, 50.7 artikuluan xedatzen duenez, erreklamazioa hilabeteko epean jarriko da, aurkaratutako egintza jakinarazi eta hurrengo egunetik edo administrazio isiltasunaren ondorioak gertatu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Hortaz, erreklamazioa legezko epearen barruan jarri da, ebazpen ukatzailearen jakinarazpenaren data ikusi ondoren.

2.- Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak pasa den ekainaren 10ean emandako 51/2019 Ebazpenaren bitartez eskaria ezestearekin batera, eskumen arrazoiak zirela medio, Gipuzkoako Foru Aldundiari jakinaraztea erabaki zuen, espedientea bideratuta, foru administrazio honek dagozkion instrukzioak egin zitzaizkien.

3.- 4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoak foru gobernaintza publikoaren esparruan, ezartzen duenez, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordearen eginkizunen artean dago informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen ezeste berariazko edo ustezkoa dela eta aurkeztutako erreklamazioak ebaztea.

4.- Hala, soilik informazio publikoa eskuratzeko eskubide horrekin lotuta aurkezten diren erreklamazioak sartzen dira batzorde honen jarduketaren-eremuan. Informazio publikotzat jotzen dira foru sektore publikoko subjektuetako edozeinen esku dauden datuak edo dokumentuak, formatu edo euskarria dena dela, subjektu horiek beren jardueretan landu edo eskuratuak.

5.- Aipatutako Foru Arauaren eremu subjektiboari buruz aipagarri da berau zabaltzen dela Merkataritzako foru sozietatetara ere. BIDEGI merkataritza sozietatea uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretuaren bidez sortu zen, eta, gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentura atxikita dago, uztailaren 19ko 20/2016 Foru Dekretuak, Bide Azpiegituretako Departamentuaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzkoak, 2.2. artikuluan ezarritakoaren arabera.

ERREKLAMAZIOAREN ONARGARRITASUNA

5.- Aurrekarietatik ondorioztatzen denez, erreklamazio honen jatorria honako hau da: erreklamaziogileak lizitatzailerik gisa aritu eta judizialki errekurritua duen kontratazio espediente batean [REDACTED] dagoen informazioa eskuratzea.

6.- Erreklamaziogileak bere idatzian jakinarazten du BIDEGIko Administrazio Kontseiluaren [REDACTED]ko Erabakiaren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarria duela, eta errekurtsio-idazkia ere ekartzen du.

7.- Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak BIDEGIri kontsulta egin ostean, sozietate honek 2019ko abuztuaren 7ko data daraman idatzian, egitate hau berresten du,



eta gogorarazten du, horren harira, [REDACTED] kontratazio espedientea dagokion epaitegiaren esku jarria duela.

8.- Erreklamaturako sarbidea kontratazio administratiboko prozedura bati dagokionez, batetik, Sektore Publikoko Kontratazio Legearen azken xedapenetako laugarrena hartu behar da aintzat; hauxe adierazten du: "Lege honetan araututako prozedurak, lehenik eta behin, legean bertan eta legearen garapeneko arauetan jasotako aginduen bidez arautuko dira eta, era subsidiarioz, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta haren arau osagarrietan jasotako aginduen bidez".

9.- Bestetik, kontuan izan behar da baita ere 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena, errekurtsua judizialki aurkeztuta baitu aipatu kontratazio administratiboko prozedurak. Arau horrek jasotzen du nolakoa izan behar duen tramite judizialean dagoen gaiaren espedienterako sarrerak, prozedura judizialen alderdi direnen partetik. Batetik, 48. artikulua lehen paragrafoan jasotzen da idazkari judizialak administrazio espedientea bidaltzeko errekerimendua egingo diola Administrazioari, eta aurrerago, xedapen beraren bosgarren paragrafoan jasotzen da, espedientea jasotakoan, alderdientzat ikusgai jarriko dela.

Beraz, erreklamazioak alegatzen duen gardentasunaren printzipioaren urraketaren oinarria da ez zaiola eskuragarri jarri une honetan auzian dagoen lizitazio prozedura baten esparruko informazio zehatz bat.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

4/2019 Foru Arauak, martxoaren 11koak, Gobernu Onari buruzkoak, foru gobernaintza publikoaren esparruan, ez du xedetzat prozedura judizial jakin baten eraginpean dauden espediente administratibo jakinetarako sarbidea arautzea. Adierazi den moduan, administrazioarekiko auzien arloari dagokion araudiak zehazten du alderdiek espedientea nola eskura dezaketen zehazki, edozein defentsa gabezia ekidin eta tutoretza judizial eraginkorra bermatze aldera.

Azken buruan, interesdun batek kontratazio-prozedura batean informazioa eskuratzeko egindako eskaria, baldin eta prozedura horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat jarri bada, abian den prozedura judizialaren barruan integratu eta ebatzi behar da, hura arautzen duten arauen arabera. Hortaz, batzorde honek ez du jarritako erreklamazioa ebazteko eskumenik.

Aurrekoa ikusita, Gardentasunaren arloko erreklamazio Batzordeak aho batez

EBAZTEN DU



Lehenengo.- [redacted] jaunak, [redacted]
[redacted] izenean eta haren ordezkari gisa eta [redacted] jaunak,
[redacted] izenean eta haren ordezkari gisa
aurreztutako erreklamazioa izapidetzeko ez onartzea.

Bigarren.- Ebazpen hau erreklamaziogileari eta BIDEGLri jakinaraztea.

Hirugarren.- Ebazpena argitaratzea, erreklamaziogileari jakinarazpena egindakoa eta datu pertsonalak bereizi eta gero.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita, Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan.

Kidea

Esther Larranaga Galdós

Batzordeburua

Haritz Ugarte Aizpuru

Kidea

Mikel Ulazia Etxabe

